



BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak
Zerbitzua: Prestazio ekonomikoen kontsulta (GES)



Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen du prestazio ekonomikoen kontsultarako web-zerbitzu hau, eta Bizkaiko elkarreragingarritasun-plataforman jarrita dago; haren bidez, pertsona jakin bati buruzko informazioa eskuratu daiteke, eta azken bi urteetan kobratu dituen prestazioen zenbatekoa jakin daiteke.

Zerbitzuak eskatutako datuak:

- **Dokumentu mota:** Kontsultatu nahi den titularraren dokumentu-mota (NANa, AIZa edo pasaporte).
- **Dokumentu-zenbakia:** Titularraren dokumentuaren zk.
- **Izena:** Kontsultatu nahi den titularraren izena.
- **1. abizena:** Kontsultatu nahi den titularraren lehen abizena.
- **2. abizena:** Kontsultatu nahi den titularraren bigarren abizena.

Zerbitzuak informazio hau itzuliko du:

- **Dokumentu-zenbakia:** Titularraren dokumentuaren zk.
- **Izena:** Prestazio ekonomikoaren titularraren izena.
- **1. abizena:** Prestazio ekonomikoaren titularraren lehen abizena.
- **2. abizena:** Prestazio ekonomikoaren titularraren lehen abizena.
- **Jaiotze-eguna:** Prestazio ekonomikoaren titularraren jaiotze-eguna.
- **Prestazio ekonomikoa:** Titularrak jasotzen dituen prestazioen zerrenda. Datu hauek itzuliko dira **prestazio ekonomiko** bakoitza dela eta:
 - **Prestazio ekonomikoa:** Titularra jasotzen ari den laguntza mota. *Ikusi prestazio ekonomikoari buruzko taularen balioak*
 - **0 metatua:** Ekitaldian ordaindutako zenbatekoa, titularrak prestazioa dela-eta metatua.
 - **1. metatua:** Ekitaldiaren aurreko urtean ordaindutako zenbatekoa, titularrak prestazioa dela-eta metatua.
 - **2. metatua:** Ekitaldiaren aurreko bi urteetan ordaindutako zenbatekoa, titularrak prestazioa dela-eta metatua.
 - **Ordainketa kopurua:** Titularrak urtean zenbat ordainketa jasotzen dituen.
 - **Hileko zenbatekoa:** Legez onartutako hileko zenbatekoa
 - **Zenbatekoaren data:** Onartutako hileko zenbatekoa noiz jarri den indarrean
 - **Hasiera-data:** Prestazio ekonomikoak noiztik dituen ondorioak.
 - **Baja-eguna:** Prestazio ekonomikoaren amaiera-eguna.

Prestazio ekonomikoei buruzko taula

Laguntza	Deskripzioa
980000	Arreta goiztiarraren banakako laguntza
700701	Familia inguruan zainketarako prestazio ekonomikoa
700702	Arreta Pertsonalerako prestazio ekonomikoa



BERTSIO KONTROLA

V.00	Bertsio Originala	2017/10/25
V.01	Kodigoen aldaketa	2018/01/19